

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko urriaren 3a / 555. zenbakia



MAGIA



ANTZERKIA



MUSIKA



ABESBATZA



BERTSOLARITZA



FILM LABURRAK



ERAKUSKETAK



HITZALDIK



IKUS-ENTZUNEZKOAK

## UDAZKEN KULTURALA

Gaur, egubakoitza, hasi eta Gabonak bitartean

ANGIOZAR ETA UBERA: 75 URTE BERGARA DIRELA/7 • MOTORRA: AITOR ZABALETA TXAPELDUN/10

AZALA: MIREN ALMARAZ

# ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20  
943 76 11 73  
Erakusketa:  
Bidekurutzeta 38  
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

# GOYSMA

Urteaga 9  
943 76 98 12

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa



# AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C  
943 76 53 82  
Tailerra:  
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

# ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26  
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

# UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A  
943 76 54 91  
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak,



# J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,  
Angiozar  
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

# GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

# BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.  
162 p.k.  
943 76 97 31  
F 943 76 97 32  
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



**ATREBENTZIAEZPADA/ Telebisiñua gustatzen jatzu? Zenbat ikusten dozu? Ze dozu gustokuen?**



**HAIZEA IÑARRA**  
9 urte



**ANDONI LASA**  
9 urte



**MATXALEN ZEZEAGA**  
9 urte



**JON MONTIEL**  
10 urte



**ALAZNE MURGIZU**  
8 urte



**ASIER TABOADA**  
8 urte

Bai, baiña ez dot askorik ikusten, egunian hamabost minutu-edo. Nahixago dot pelikulak ikusi bideuan. Telebisiñuan gehixen gustatzen jatena da marrazkixak eta *Betizu*.

Asko gustatzen jat. Egunero ikusten dot nik telebisiñua. Gehixen gustatzen jatena *Shin Chan* da. Normalian eguardixan ikusten dot, eta gabian gurasuekin ikusten dot albistegixa.

Asko gustatzen jat, baiña egun batzutan gehixago eta beste batzutan gutxiago ikusten dot. Ez dot egunero ikusten. Gehixen gustatzen jatena marrazkixak eta *Betizu* die.

Gustatzen jat ikustia telebisiñua, baina segun eta zer dagon. Batzutan ordu bat ikusten dot, beste batzutan ordu eta erdi... Gehixen gustatzen jat *Goenkale*, *Ana y los 7* eta musika saiuak.

Neri be gustatzen jat. Egun batzutan gehixago ikusten dot eta beste batzutan gutxiago. Udako oporretan gehixago ikusten dot. *Doraemon* eta *Shin Chan* gustatzen jat gehixen.

Asko gustatzen jat telebista ikustia. Ixa egunero ikusten dot. Normalian egurdixan eta gabian ikusten dot. Gehixen-gehixen *Shin Chan* eta *Doraemon* gustatzen jat.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK EDUKIONTZIAK EGINO MALLEA AURREAN** Azken urtetan turismoa promozionatzeko lanetan dihardu Udalak. Herrian badira turistak erakartzeko jauregi eta bestelako eraikuntza dotoreak, baina edukiontziek mesede eskasa egiten diote. Egin Mallearen aurrean lau edukiontzi jarri dituzte eta argazki kamerarekin datozen turistek nekez ahal izango dute etxearen argazki eder bat atera. /E.M.

**ETABARRUAN...**

ASTEKO BERRIAK / 5	KIROLAK / 10	KULTURA / 12
<b>Masterreka kalea</b>	<b>2004ko Euskal Herriko Itzulia</b>	<b>Udazken Kulturala</b>
Itxi egingo dute bi eraikin eraisteko. Astelehenean erre bat itxiko dute. Datorren astean guztiz.	Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa Bergaran jokatu da apirilaren 5ean.	Gaur, egubakoi-tza, hasi eta Gabonak bitartean ekitaldi ugari ekarriko ditu Udazken Kulturalak.

**ASTEKO DATUA**

**75**


**URTE ANGIOZAR ETA UBERA BERGARAKO PARTE DIRELA**

Aurten 75 urte bete dira Angiozar eta Ubera auzoak Elgetatik banatu eta Bergarako parte izatera pasatu zirela. Elgetatik Eibarrerako errepide berriak eragin zituen Elgetarekiko ika-mikak.

**BESTE EKESANA**

**“**Itxaropena dut Auzitegi Konstituzionalaren erabakia ez dela Nurenbergeko epailearena bezain alderdikoia izango. Nurenbergeko Auzitegiak Espainiako agintarien bertsioa onartu egin zuen besterik gabe. Frogak lortzeko nondik norakoak ezkutatu egin zizkieten, baina auzitegi horrek ez zuen halakoen berri galdetzeko arrazoirik ikusi. Horregatik ez genuen inolako aukerarik izan. (...) Nire aurkako salaketa atxilotu batek Poliziaren aurrean egindako aitortpenean oinarritzen da soil-soilik. Haren arabera, auto bat gidatu omen nuen atentatu bat egiteko. Hala ere, salaketa hori alemanezko itzulpenan agertzen da soilik. Gaztelaniazko jatorrizko bertsioak besterik dio eta estradizio eskaeran ETari laguntza eman niola besterik ez da esaten. **PAULO ELKORO / Munich-en preso 'Gara' / 03-09-29**

**BERAIEK DIÑOE / Iñigo Garitano**



*Ongi etorria ekarpen berri bati*

**D**onostiako Zinemaldian Julio Medemek aurkeztu duen *Euskal pilota: larrua harriaren kontra* filma ikusteko aukerarik ez dut izan oraindik. Oraingoz, horri buruz sortu den aurreko polemika zarata-tsua eta ondorengo iritzien jarraipena besterik ez dut egin. Beraz, ez dut pelikulari buruzko iritzirik. Hala eta guztiz ere, jadanik alde baiko-rak ikusi dizkiot: Kurasaaleko emanaldian izan ziren ikusentzuleen aniztasuna, adibidez. Edo eta, ikuspuntu kontrajarriak dituzten agenteen gutxienezko bat etortzea, sikiera egoeraren krudeltasunaren aurrean. Ez da gutxi (nahiz eta oraingoan ere mutur batekoak kanpoan gelditu nahi izan duten). Askotan entzun dugu gure gatazka humanizatu beharra dagoela, eta hortik hasiko garelako tunel ilunaren bukaera ikusten.

lukeen oreka inorentzat ez omen da izan guztiz egokia: seinale ona. Julio Medem ez da euskal abertzalea. Eta zintzotasunez jokatu omen duela dirudi. Filma errodadaten hasi aurretik finkatutako oinarrietan adierazi zuen “begirada garbiarekin” zetorrela: Ahalegin txalogarria eta ausarta.

Inozoena litzateke erakuspen kultural bati horren beste garrantzi ematea. Hala ere, ezin da ahaztu zinea balore estetikoak zabaltzeaz gain, gizartean eragina sortzeko tresna ere badela, eta kasu honetan debalde egin zaion publicitateari esker, askok ikusiko dugula. Ea sortu diren aurreikuspenak betetzen diren, eta gatazka mingarri hau ulertzeko beste elementu baten bilakatzen den, ekarpen xumea izan arren.

Guztion eta era guztietako ekarpenak beharrezkoak ditugu. Alderdi politikoenak, herri mugimenduetakoak, ... Zine egileenak ere bai. Hau ere bai.

**“Medemen lanak gorde beharko lukeen oreka inorentzat ez omen da izan guztiz egokia: seinale ona”**

Baina aldi berean, Medemen lanak gorde beharko

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 3**  
ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

**ZAPATUA, 4**  
MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15

**DOMEKA, 5**  
MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15

**ASTELEHENA, 6**  
CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

**MARTITZENA, 7**  
PUY. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87

**EGUAZTENA, 8**  
GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

**EGUENA, 9**  
ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**  
Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 76 24 40  
Bergarako Udaltzaingoa . . . . . 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa . . . . . 943 76 62 46  
Ertzaintza . . . . . 943 76 53 40  
Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40  
Asepeyo . . . . . 943 76 16 43  
Pakea . . . . . 943 76 13 49  
Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27  
Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23  
Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak . . . . . 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaltzaingoa . . . . . 943 77 91 00  
Antzuolako Udaltzaingoa . . . . . 943 76 62 46  
Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32  
Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51  
Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58  
Liburutegia . . . . . 943 77 91 62  
Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza . . . . . 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epätegia . . . . . 943 76 14 92  
Erregistroa . . . . . 943 76 13 15  
Jardun . . . . . 943 76 36 61  
Idolaz . . . . . 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara. . . . . 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. . . . . 943 76 62 71  
Postetxea . . . . . 943 76 26 85  
Bedelkar . . . . . 943 76 04 68  
Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53  
Bergarako notariotza . . . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

**San Pedro**  
Labegaraieta  
Domekak: Domekak: 11:00.  
09:30, 12:30. **San Lorentzo**  
Zapatuak eta Zapatuak: 20:00.  
lanegunak: **Angiozar**  
19:00. Domekak: 11:30.  
**Sierbak** **Moja Zaharrak**  
Lanegunak: 19:15. Lanegunak: 09:00.  
Zapatuak: Zapatuak: 11:00.  
19:00. **Mizpirualde**  
Domekak: Lanegunak: 11:45.  
11:30, 13:00. Zapatuak: 17:30.  
**Osintxu** **Antzuola**  
Domekak: 12:30. Domekak:  
Zapatuak: 19:00. 09:00, 11:30.  
**Elosu** Zapatuak eta  
Domekak: 10:30. lanegunak: 19:30.  
**Ubera** **Uzarraga**  
Domekak: 10:30. Domekak: 10:00.  
**San Juan** **Elgeta**  
Domekak: 11:00. Lanegunak: 09:00.  
**Elorregi** Zapatuak: 19:30.  
Domekak: 10:30. Domekak: 12:00.

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.  
**San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**INFORMATIKA IKASTAROK**  
KZGuneak herritar guztien- dako informatika ikastaro- ak eskaintzen ditu. Era berean, dendariei zuzendu- tako ikastaroak izango dira. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

**ARITZETAREN ZOZKETA**  
Aritzeta abesbatzak eginda- ko zozketan 186 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zestoako bainuetxean bi lagunendako aste bukaera irabazi du.

**MARGO IKASTAROA**  
Beart elkarteak margo ikastaroa antolatu du. Eskolak martitzenetan izango dira, 16:30etik 20:30era, urriaren 7an hasita. Izenematea: 656 72 44 49.

**ODOL ATERATZEA**  
Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea urriaren 8an izango da, Seminarioko lekalean, 18:30ean hasita.

**GRIPEAREN KONTRAKO KANPAINA**  
Gripearen kontrako txerta- keta kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du. Txertoa ipintzeko interesa dutenek ambulatiora dei dezakete (943 03 54 00), 14:00etatik 17:00etara.

**JARDUNENAGENDA**

**TRIKITI ETA BERTSO ESKOLAK ETA BARRETERAPIA**  
Jarduneko trikitixa eta pandero eskolan eta bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago. Bestalde, bihar, zapatua, barretera- pia ikastaroa hasiko da. Ikastaroa zapatu goizetan emango dute, Arrizuriagan. Argibideak 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 zenbakietan.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00,07:40,08:50,09:40,10:20,11:00,11:40,12:20,13:00,13:30,14:20,16:00,16:40,17:20,18:10,19:00,19:40,20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki deiegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegaraieta / Olibarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN**

**Maite Aristegi EHNEko ordezkariari elkarrizketa**


Maite Aristegi EHNEko orduko aholkulari juridikoa elkarrizketa genuen 1993ko urrian. Besteak beste, ez bakarrik feria egunetan, baizik eta urtean barrena ere baserriarren lana gehiago estimatu behar zela esan zigun. Eta Oxirondoko merkatu berriak zituen hutsuneak salatu zituen.



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**

**"Koskortu"**

Dezente hazi, handitu. Umeez, batik bat.  
—Zuek umiak koskortuta duakazute.  
—Puxka bat koskortu arte ezkiñan gu Bergara sekula bajau.



GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA** 8°C  
Eguena, 25

**MAXIMOA** 31°C  
Eguena, 25

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** 12,1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	23 °C	13 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 25	31 °C	8 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 26	24 °C	13 °C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 27	24 °C	15 °C	1,1 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 28	20 °C	17 °C	4,4 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 29	24 °C	15 °C	3,2 l/m <sup>2</sup>
Martitza, 30	22 °C	13 °C	3,1 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOFILMAK**

**'PIRATAS DEL CARIBE'**

ZUZENDARIA: GORE VERBINSKI. AKTORE- AK: JOHNNY DEPP, GEOFFREY RUSH, ORLANDO BLOOM.

**HARIA.** Karibeko lekuren batean Barbossa kapitainak ontzia lapurtuko dio Jack Sparrowri. Piraten abenturak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**'ROSA LA CHINA'**

ZUZENDARIA: VALERIA SARMIENTO. AKTORE- REAK: JUAN LUIS GALIARDO, LUISA MARIA JIMÉNEZ, ABEL RODRÍGUEZ.

**HARIA.** Espainia osoa geldirik dago siesta orduan, irratian emittitzen ari diren foiletoia dela eta. Rosa La Chinen eta Dulzura haren gizonaren istorioa da, trazioz eta zeloz betea. Rosak Marcorekin abentura bat izango du eta Dulzuraren susmoak hasiko dira...

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Eguenean, hilak 9, 20:00etan.


PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



**ERREPIDEAK/** Beasain-Durango errepideari dagokion Bergara-Zumarraga zatiaren proiektuari egindako alegazioetan eskatu du hori

# Ekialdeko saihsbidea lau erreikoa bihurtzeko eskatu dio Udalak Aldundiari

MONIKA BELASTEGI

Diputazioak Beasain-Durango errepideari dagokion Bergara-Zumarraga zatiaren proiektua onartzeko azken urratsak ematen dihardu. Tarte hori lau erreikoa izango da. Udalak eskatu du ekialdeko saihsbidea horren jarraipena izanik hura ere lau erreikoa izatea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak ekainean hasi zituen Bergara-Zumarraga zatiaren trazatu proiektua onartzeko urratsak. Horrela, proiektu hori bera eta ingurumenaren eraginari buruzko azterlana jendaurrean egon dira, nahi zuenak alegazioak egin zitzaizkien.

Bergarako Udalak bi alegazio egin dizkio, eta alegaziook asteleheneko osoko bilkuran onartu zituzten alderdi guztiek aho batez.

## EKIALDEKO SAIHSBIDEA LAU ERREIKOA IZAN DADILA

Bi alegaziook ekialdeko saihsbideari lotuta daude. Bergara-Zumarraga errepidea lau karrilekoa izango da, proiektuan jasotzen denez. Lau karrilekoa izateko, zirkulazio azterlanetan oinarritu dira proiektuaren egileak. Hori horrela, Udalak onartutako lehen alegazioan eskatzen du esandako zirkulazio irizpidea ekialdeko saihsbideari ere aplikatzea.

Lehen alegazio horretan oinarritzen da bigarrena: Bergara eta Zumarraga arteko trazadura proiektuaren eremua handitzea eta ekialdeko saihsbidea bere baitan hartzea eskatu du bigarren alegazioan Udalak. Hori horrela, ekialdeko saihsbidea ere lau erreikoa bihurtuta. Hori posible



ARTXIBOA

Ekialdeko saihsbide estreinatua berria da Beasain-Durango errepidearen trazadura guztian bi karriletakoa izango den zati bakarra.

*Ekialdeko saihsbidea lau erreikoa bihurtzea nahi du Bergarako Udalak*

ez balitz, ekialdeko saihsbidea errepide normala izatetik lau erreikoa izatera pasatzeko beharrezkoa den proiektua egiteko eskatu dio Udalak Aldundiari.

*Lau erreikoa izateko bi alegazio egin dizkiote Bergara-Zumarraga trazatu proiektuari*

Berehala egiteko eskatu dio, gainera, horrela, Bergara-Zumarraga autobia eta ekialdeko saihsbidearen moldaketa aldi berean egiteko.

*Beasain-Durango osoan ekialdeko saihsbidea da bi erreiko errepide zati bakarra*

**EKIALDEKO SAIHSBIDEA: BI ERREIKO ZATI BAKARRA**  
Beasain-Durango errepidearen trazatu guztia da lau erreikoa; bi erreikoa den tarte barrak ekial-

deko saihsbideari dagokiona da, hain zuzen ere.

Ez da lehenengo aldia Bergara-Zumarraga proiektuari Bergaratik alegazioak egiten zaizkiona. Aurrez, 1998an, Bergara-Ormaiztegi tartearen azterketa aurkeztu zutenean ere alegazioak egin zizkieten Udalak, Bata-sunak eta Debagoieneko Mankomunitateak, besteak beste. Izan ere, azterketa haren arabera, Bergara-Zumarraga tarreak bi erreikoa izan behar zuen. Hala ere, hura aldatu eta lau erreikoa izatera pasatu zen.

# Masterreka itxiko dute astelehenean

MONIKA BELASTEGI

Udaleko iturriek aditzera eman dutenez, astelehenean itxi egingo dute Masterreka kalea behetik gora egin nahi duten ibilgailuendako. 10. eta 12. zenbakiak dituzten eraikinak bota egingo dituzte, eta horixe da kalea ixteko arrazoia.

Astebeteg egongo da itxita bidea behetik gorako noranzkoan. Horren ondoren, guztiz itxiko dutela aurreratu dute iturri bereberak. Beraz, ezin izango dute ibilgailuek Masterreka erabili ez gorako ez beheko noranzkoan.

Hori guztia dela eta, Gasparretik desbideratuko dituzte autoak, Bergarako Udaleko iturrien esanetan.

## OSINTXURAKO SARRERA ITXITA

Horrez gain, datorren eguaztenean, urriaren 8an, itxi egingo dute Osintxu auzorako sarrere-tako bat: Bergaratik Osintxurako lehen sarrera, hain justu ere.

Hodidak sartzeko zorua zultu egin behar dute, eta lanok egin bitartean egongo da itxita sarrera hori. Hori dela eta, auzora sartu zein irteteko bigarren sarrera erabili beharko dute ibilgailuek.



MONIKA BELASTEGI

Ettxagi tabernaren ezkerrean dauden 10. eta 12. zenbakiak botatzeko itxiko dute Masterreka kalea.



Kalez jantzita zihoan ertzain batekin izan zuen tira-bira langileak. Hutsegitea leporatu diote eta astlehenean epaituko dute.

**ENPRESA/** Eguaztenean langileetako bat atxilotuta eraman zuen Ertzaintzak

## Torunsako langileek beste hiru greba egun egin dituzte

MONIKA BELASTEGI

**Aurreko astean iragarritakoa betez, hiru greba egun egin dituzte aste honetan Torunsako langileek: eguaztena, eguena eta gaur, egubakoitza. Lan Hitzarmenean ezadostasunak dira arrazoia. Eguazten goizean langileetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak.**

Eguazten goizean eraman zuen atxilotuta Ertzaintzak langilea. 08:00ak aldera izan zen. Torunsako langileak, langileen ordezkariak eta herriko beste lantegi batzuetako ordezkari sindikalak Torunsa aurrean elkarretaratu-

ta zeudela gertatu zen atxiloteta. Ordu horretan, enpresako nagusia eta bulegoetako hainbat langile lanera sartzekotan ziren Ertzaintzak eskoltatuta. Orduan gertatu zen langilearen eta kalez jantzita joan arren identifikatu ez zen ertzainaren artean tira-bira. Preso eraman zuten eta egun berean 14:00 aldera laga zuten libre. Hutsegitea leporatu diote eta astlehenean epaiketa izango du.

### LAN HITZARMENA NEGOZIATZEN

Lan Hitzarmena da Torunsako langileak greban egoteko arrazoia. Enpresa batzordeak uztai-lean aurkeztu zion hitzarmen proposamena zuzendaritzari, bai-

na esan dutenez, zuzendaritza ez dago negoziatzeko prest. Martitzenean batzarra egin zuten bi aldeek baina ez zuten ezer adostu.


Langileen eskaera garrantzitsuena kontratazioen gainekoa da: batetik, urtebetez lanean diharduten behin-behineko langileei mugagabeko kontratua egitea eskatzen dute; bestetik, Lan Hitzarmena onartzen den unetik aurrera egiten diren behin-behineko kontratuak sei hilera mugagabe egitea. Bestalde, urteko jarduna 16 ordu murriztea eta soldatak %5,5 igotzea eskatzen dute. Egunotan akordioarik ez badago astlehenean mugagabeko greba hasiko dutela iragarri dute.

### Dendariendako eskolak KZGunean

KZGuneak merkatarientako Informatika Plana jarriko du laster martxan.

Euren laneko kudeaketan teknologia berriak erabili nahi dituzten dendariei dago zuzenduta. hamar eta hogeitau orduko ikastaroak izango dira eta izena emateko epea zabalik dago. Izena 900 500 900 telefonoan eman daiteke.

Bestalde, KZGunea herritar guztiendako zabalik dago astlehenean egubakoitzera. Ikastaroen gain, erabilera libreko gela ere interesa duten guztiek erabil dezakete.



## LABUR

### Gaur, egubakoitza, Fraisko zurin izango da Jardunek antolatutako Jolasleku Ibiltaria

Sei eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta helburua da euskal kantu eta jolasen bidez euskaraz jolas egiteko baliabide egokiak eskaintzea eta bereziki ahozkoasuna lantzea. Egingo diren jolasak hauek dira: soka saltoan, abestiak, zapi jolasak, tortoloxak, baloia... Gaur Fraisko zurin izango da Jolasleku Ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara.

### Migel Altunako Internet gela egunero dago zabalik herritarrek erabil dezaten

Migel Altuna institutuko Internet gela egunero dago zabalik, 15:00etatik 19:00etara. Interesa duen edonork erabil dezake. Gainera, erabiltzea doan da.

### Arropa bilketa zerbitzuak aurrera jarraitzen duela gogorarazi du Caritas-ek

Caritas-ek azaldu duenez, Mankomunitateak arropa jasotzeko edukiontzi zuriak jarri dituen arren, herritarrek eman dezaketen arroparen beharrea daude, orain arteko lanarekin jarraitu ahal izateko.

Alkabieta kalean arropategi-tailerra dute: arropa jaso, garbitu, lisatu, prestatu, sailkatu eta banatu egiten dute. Tailerraren helburua bikoitza da: batetik, heziketa okupazionala ematen diete hainbat laguni, eta bestetik, arropategi zerbitzua dauka, beharra duten pertsonen arropa banatzeko.

### Ekonomia Jardueren Gaineko Zerga ordaintzeko epea aste honetan zabaldu dute

Aurtengo Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren ordainagiriak ordaintzeko epea eguaztena, urriaren 1a, ezker dago zabalik. Ordainketarako borondatezko epea azaroaren 1ean amaituko da. Esandako epea amaituta, ordutik aurrerako ordainagiriak erre-karguaz kobratuko dituzte.

Ordainagiriaren ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxearen bidez bidali kobratuko zaie. Ordainagiria helbideratu gabe dituztenen kasuan, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharrezkoa duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxetatik edo udal bulegotik pasa daiteke ordainketa egiteko. Halaber, agiri hori urriaren 31 baino lehen jaso ez epean edo azalpenen baten beharra izanez gero, kontu-hartzailearen bulegotik pasa daiteke.

### Rock taldeekin eta BEKE elkartearekin hitzarmena egin du Udalak egoitzak uzteko

Astleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zuten alderdi guztiek rock taldeei eta BEKE emakume elkarteari lokalak lagatzeko hitzarmena.

Rock taldeen kasuan, entseatzeko Goiko Estaziñoko eraikina lagatzeko hitzarmena da. 2000. urtean hasi ziren rock taldeak esandako eraikina erabiltzen. Orduan sinatutako hitzarmenak hiru urterako balioa zuen. Orain sinatu duten hitzarmenak sei hilabetez luzatuko die gazteei lokala erabiltzeko baimena.

BEKE emakume elkartearen kasuan, Irizar jauregia bigarren solairuan dagoen lokala lagako die Udalak. Orain arte eskulan ikastaroetarako erabili izan den lokala da hori. Lokala aisialdirako edo formazio ekintzak egiteko erabiliko du BEKE elkarteak. Astlehenean onartutako hitzarmenaren arabera, urtebeterako lagako diote lokala BEKEri.

### Aralar alderdiko Juan Martin Elexpuruk laga egin du zinegotzi kargua

Juan Martin Elexpuru Aralar alderdiaren zerrendako bigarrena zen. Hala, Juan Martin Elexpuruk kargua lagata, zerrendako hurrengoak hartuko du haren lekua: Libe Txintxurretak, hain justu ere. Halaxe onartu zuen udalbatzak astlehenean izandako osoko bilkuran.

Libe Txintxurreta alderdiaren laugarren zinegotzia izango da. Hala eta guztiz ere, Aralarako ordezkari Ainhoa Larrañagak osoko bilkuran azaldu zuenez, laugarren zinegotzi hori ez dute erabiliko: "Orain arte egin dugun moduan; guri beharrez, Bergara Aurrerari dagokiolako. Guk dagozkigun hiru zinegotzietan jarraituko dugu lanean".

**AUZOAK/** Elgeta eta Eibar lotuko zituen bide berriak eragin zituen, batik bat, auzotarren eta Elgetako Udalaren arteko eztabaidak

# Aurten 75 urte bete dira Angiozar eta Ubera Bergara izatera pasatu zirela

MONIKA BELASTEGI

Aurten 75 urte bete dira Angiozar eta Ubera Elgetatik Bergarako auzo izatera pasatu zirela. 1927an izan zen, 600 urte Elgetari lotuta egon eta gero. Banatzea auzotarrek eskatu zuten, besteak beste, Elgetatik Eibarrera egin behar zuten errepede berria zela-eta.

Elgetatik Eibarrerako bide berriak eztabaida ugari eragin zituen Elgetako Udalaren eta Angiozarren eta Uberaren artean. 1922ko ekainaren 22an eginakako osoko bilkuran Foru Aldundiari bide berria eskatzeko erabakia hartu zuen Elgetako Udalak; Elgeta eta Eibar lotuko zuten bide berria egiteko proiektua egin zezala, azken batean.

Eskaeraren arrazoia izan zen garai hartan Elgetan zegoen industria apurra Eibarkoaren mende zegoela. Hala ere, ez zegoen bide zuzenik bien artean; Eibarrera joateko 20 kilometro egin behar izaten ziren -zuzeneko bideak 7 kilometro ditu-, Bergararik eta Soralezetik igarota.



Angiozar eta Elgeta lotzen dituen bidea 1982an zabaldu zuten: 4 Km ditu; horren aurretik, 15 Km egin behar izaten zuten.

Eskari haren aurrean, Angiozarko zinegotziek bidea Angiozarko kaleraino luzatzea eskatu zuten. Izan ere, bidea aurrekontu pu-

blikotik ordaindu behar zenez, guztiak onuradun izateko, ez Elgetako bizilagunak bakarrik. Baina eskariak ez zuen aurrera egin.

Elgeta eta Eibar arteko errepedeak, aldiz, bai: Aldundiak 1924ko maiatzaren leian erabaki zuen proiektua egitea, eta 1928an

eman zioten oniritzia proiektuari Elgetako eta Eibarko udalek.

**BANAKETA 1927AN**

Angiozarren eta Uberaren eskaera ez onartzeak egonezina piztu zuen auzotarrengan, eta bidea eraikitzekeo prozesuak areagotu egin zuen egonezina: Elgetak bidea egiteko lanei aurre egiteko diru nahikorik ez zuela zioten.

Horren guztiaren aurrean, 1925eko abendurako Elgetatik banatu eta Bergaran sartzeko eskariak eginda zeuden. Elgetako Udalak 1927ko martxoaren 24an onartu zuen banatzeko eskaera eta Bergarakoak, berriz, urte bereko apirilean eman zion baieztza bere baitan sartzeko eskariari. Hori horrela, bi udalen artean sinatutako akordioaren arabera ezarri ziren muga berriak eta ondare publikoaren tasazioak eta eskualdaketak. Baita Angiozarkoek eta Uberakoek ordaindu beharreko sarrerera zerga ere.

Elgetarako bidea egiteko urte dezente itxaron behar izan ditu Angiozarrek Elgetarako bidea egiteko: 1982an zabaldu zuten Asentziotik barrena doan bidea.

## ENRIKE TRIPALDI HORTZ KLINIKA

Justo Garate I-behea helbidean gaude orain. Horrela, gure bezeroei zerbitzu hobea eskainiko diegu. Ekipamendu berria dugu eta hobekuntzak egin ditugu, gure lana perfektionatzeko eta teknifikatzeko. Zerbitzu hobea eskaintzeko kontsulta informatizatua daukagu.





Lantalde profesional onena zure zerbitzura.

Horrez gain, ondorengo zerbitzu hauek ditugu: Odontologia orokorra, prebentziorako tratamenduak eta ondorengo espezialitateak: ezarpenak, tratamendu periodontalak (hortzoiaren tratamendua) eta ume eta nagusiendako kirurgia eta ortodontzia. Umeendako bereziki zuzendutako PADI daukagu (6 eta 14 urte arteko umei zuzendutako tratamendu plana) Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta. Gainera, gure asegurekin ere jarraitzen dugu.

**Odontologoak: Enrike Tripaldi, Iraia Ogiza eta Luis A. Campodorico.**  
**Laguntzaileak: Pili Etxeberria eta Rakel Cenzual.**

Ondorengo berritasunak ditugu:



Teleradiografia



Radiovisiografia




## BIOLINISTAK BERTATIK BERTARA

**E**uskal Telebistako Bertatik bertara saioan Musika Eskolako biolinista gaztetxoak ikusi ahal izan genituen astelehenean. Aurreko eguenean Urko Aristi kazetaria etorri zen Bergarara, Suzuki metodoaren gaineko erreportajea egitera. Josune Ena irakaslearen eskutik, Musika Eskolan 3 urtetik 7 urtera bitarteko 15 neska-mutiko dabilta metodo hori jarraitzen. Estitxu Fernandezek aurkezten duen ETBko saioan azaldu ziren biolinistak astelehenean, eta biolina ondo afinatuta dutela erakutsi zuten. Argazkian, Musika Eskolako ikasle talde bat.



## USAKUME TIROKETAN MAISU

**L**uis Etxabarri bergararrak Errege Kopako usakume tiroketa irabazi zuen Somontesen, Madrilen, irailaren 20an. Bostehun tiratzaile izan ziren lehian, tartean Daniel Teixeira portugaldarra, munduko txapel-duna. Bi jardunaldi izan ziren, eta bietan bikain aritu zen Luis: jaurtiketa bakarra huts egin zuen. 26 metroko distantziatik jaurtitzen zuten. Diru sariaiz gain, Etxabarrik argazkian ikusten den trofeo ederra jaso zuen.



## SAN MIGELEN ZERURATZEA EGIN ZUTEN ANGIOZARREN

**A**zken urteotako ohiturari jarraituz, auzoko jaiak bukatzeko San Migelen zeruratzea egin zuten astelehen iluntzean Angiozarko plazatik. Herriko gaztetxo batzuek askatu zuten San Migel eta puxika handi batzuen laguntzaz bidaia luzeari ekin zion santuak. 1991n hasi ziren Angiozarren San Migelen zeruratzea egiten eta ordutik hona, besteak beste, Faltzesen (Nafarroan), Irungo Aiako harrien inguruan, Munitibarren (Bizkaian), Leongo Alciles herrian edo Saint Ecren (Frantzia) azaldu izan da. Santuak idatzi bat darama, eta han azaltzen denez, aurkitzen duenarendako 160 euroko saria eta Angiozar bisitatzeke gonbidapena izango da. Ea, ba, noraino doan aurtan San Migel!

## ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



INGAINARITIRAKA



Jaione López

OKIPARK HAUR PARKEKOA

Administrari ikasketak egin zituen Jaionek eta duela bi urte eta erdi Amillagako Okipark-en dabil lanean, Esther Ruiz lagunarekin. Haur parkean nagusiki 4 eta 7 urte arteko neska-mutikoak dabiltzala esan digu Jaionek.

Lanean, umeekin ala nagusiekin gusturago?

Zein ume eta zein nagusi den... Orokorrean, denekin ondo.

Zure lanerako beharrezko dohaina?

Pazientzia handia beharrezkoa da.

Lan handien noiz izaten duzue?

Aste bukaeretan eta, batez ere, negu partean.

Neskak ala mutikoak bihurriago?

Beharbada mutikoak bihurriagoak dira...

Umetako oroitzapen onena?

Osintxuko Mugarri baserrian igarotako uda, 6 urte nituela.

Lanean, musika ala irratia?

Irratia nahiago. Telebista ere pizten dut batzuetan.

Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?

Atzeko orrialdetik hasten naiz.

Horoskopoa irakurtzen duzu?

Bai. Aries zeinukoa naiz; jenio bizikoak ei gara.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egia esatea, gezurretan ez ibiltzea.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Ahal dudanean motxila hartu eta mendira joatea gustatzen zait.

Gustuko mendi bat?

Anayet, Pirinioetan. Inguruan, Aizkorri.

Urtaro ederrena?

Uda, orduan oporrak izaten ditugu-eta.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

Paula (Isabel Allende)/Kamchatka/Dire Straits.

Telebistako programa bat? Eta ikusi ezin duzun beste bat?

Ahal dudanean CSI ikustea atsegin dut. Domeketako futbol

saiok, berriz, ezin ditut jasan.

Gustuko janari eta edari bana?

Lekak eta sagardoa.

Kinielan edo loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?

Opor luzeak hartuko nituzke.

Nora egingo zenuke bidaia bat?

Kanadara.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Iñaki Larrañaga

PERU / 2003ko uztailean

**O**rain dela bizpahiru urtetik-edo geneukan *trekking* batzuk egiteko asmoa. Hasiere baten Himalaiara joatea pentsatu genuen, baina hango egoera politiko nahasia dela eta, Perura joatea aztertzen hasi ginen. Han bizi den Aritza Monasterio elgoibartarrarekin harremanetan jarri ginen, eta bidaia ondo zehaztu ondoren Perurantz abiatu ginen uztailearen 24an. Sei lagun ginen espedizioan: Maria Jesus Urien emaztea, Arantzazu eta Mikel seme-alabak eta Patxi Rubio eta Fernando Saldaña Iruñeko lagunak.

Mendikate Zuria deritzon zonan ibili gara, Huascarango Parke Nazionalean, hain zuzen ere. Huarazera heltzeko autobusean zazpi orduko bidaia dago Lima hiriburutik. Aritza Monasteriok bertan egiten du lan, gidarien monitore. Era berean, Euskal Herria izeneko jatetxea dauka eta etxean mendizaleendako aterpetxea.

Huaraz 3.000 metro inguruko altueran dago eta handik ateratzen dira *trekking* gehienak. Poliki-poliki altuerara egokitzeko, bederatzia eguneko *trekking*-a egin genuen lehenbizi. Lehenbiziko egunetan lau orduz ibili eta atsedean hartzen genuen, altuerara ohitzeko. Gurekin batera Aritza eta perutar bat, Samuel, etorri ziren, gida



*“Mendikate Zuria deritzon ingurunean ibili gara, Huascarango Parke Nazionalean”*

*“Mendian ondo moldatu gara eta hango paisaiarekin gozatzeko aukera paregabea izan dugu”*

ri lanak egiteko.

Pisco mendira (5.752 m) iritsi ginen eta handik berriz ere jaitsi ginen Huarazera. Egun eta erdiz atsedean hartu eta gero, bost eguneko *trekking*-a egin genuen jarraian, Urus (5.495 m) eta Tocllaraju (6.034) mendietara. Eguraldi txarra zela eta, azken honen gailurretik oso gertu atzera bota behar izan genuen, elurra arriskutsu zegoen-eta. Berriz Huarazera itzuli ostean, azken *trekking*-a egin genuen, sei eguneko, Huapi (5.520 m) eta Ishinca (5.530 m) mendietara. Patxik, berriz, Ishincara etorri beharrean, eskalada teknikoagoa egiteko, Ranrapalcara (6.136 m) jo zuen.

Andeetatik Mendikate Zuria izango da zona ederrenetakoa. Giroarekin ere zortea izan dugu, Andeetako Uda deritzon sasoiaren ez duelako apenas euririk egiten. Paisaiarekin gozatzeko aukera paregabea izan dugu. Mendian ondo moldatu gara: pisu txikia eramaten genuen motxilan (kantimplora, polarra eta argazki kamera besterik ez)

eta gainerakoa astoek kargatzen zuten. Granpoiarekin ibiltzeko baldintza onak izan ditugu. Era berean, mendiko altuera jasateko modu onena tea eta koka matea hartzea da.

EDU MENDIBIL



Espediziokideak Urus mendiko gailurrean. Atzean, ezkerrean, Isinca eta eskuman Ranrapalca mendiak ikusten dira.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

## ELKARRIZKETA

AITOR ZABALETA/AUTO GIDARIA

# "Karreretan tentsio puntu hori izan bitartean lehiatzen segitzeko asmoa dut"

EDU MENDIBIL

Zapatuan Montecalvoko igoeran nagusitu ondoren, Aitor Zabaleta (40 urte) Mendiko Euskadiko Txapelketa eskuratu du. Jaizkibelgo probaren faltan, bergararak jarraian lortzen duen seigarren txapelketa da hau.

Orain arte jokaturako bost probetatik lau irabazi dituzu. Badirudi aurkaririk ez duzula izan.

Ez pentsa, lehia handia egon da Vilariñoren eta bion artean. Orain dela bi aste Urrakiko Igoera erabakigarria gertatu zen. Han irabazi egin nuen, eta nire errekorra lau segundotan hobetu nuen. Horrek erakusten du zer-nolako lehia egon den, dena eman dugula. Vilariño, behar bada, behera etorri zen Urrakin galdu eta gero. Zapatuan, berriz, ez zuen parte hartu Montecalvon, hark jakingo du zergatik.

Vilariño, Egozkue eta zu zeu beteranoak zarete. Ez dago ordezkorik, atzetik datozen gazterik, ala?

Gidari gazteak badabilta, baina ez dira animatzen barketak edo formulak erostera; normalean potentzia txikiagoko autoekin lehiatzen dira. Betiko kontua:



auto onak erosteko babesle indartsuak behar dira eta horiek lortzea ez da hain erraza.

Zuk urte dezente daramatzazu auto berarekin, ala?

Bai, 14 urte dauzka nire Lola-Diamante barketak. Autoz aldatzeko asmoa daukagu, baina diru asko eskatzen du horrek, eta negar egiteaz aspertuta nago.

*"Txapelketan lehia handia egon da Vilariñoren eta bion artean Urrakiko Igoerara arte"*

Zure inguruko taldeak ere ez dizu huts egiten.

Ez, oso pozik nago laguntza eskaintzen didaten guztiekin. Mekaniko eta lagun onak daukat inguruan, eta emaitzak hor daude. Eskerrak eman nahi dizkiet guztiei. Gure ama ere jarraitzaile finena daukat. 83 urterekin karrera guztietara etortzen da.

Hainbeste aldiz irabazi eta gero, oraindik ere ilusioa egiten dizu Euskadiko Txapelketa eskuratzeak?

Bai. Egunen baten aspertuko naiz, baina oraindik karreretan nerbioso jartzen naiz, eta tentsio puntu hori izatea seinale ona da. Horrela jarraitu bitartean lehiatzen segitzeko asmoa daukat.

Euskal automobilismoa zein egoeratan dago?

Oso momentu onean ikusten dut, Urrakin eta Montecalvon bildutako jendetza ikustea besterik ez dago. Zale ugari eta babesleek ere jarraitzen dute laguntzen. Bestalde, lehen, auto gidari askok nahiago zuten Espainiako Txapelketa korritu, baina gaur egun gehienek hemen lehiatu nahi dute. Nire ustez, Euskadiko Txapelketak Espainiakoak baino prestigio handiagoa du, gidari onenak gurean dabiltzalako.

Azaroan txapelketako azken proba jokatu da Jaizkibelen. Zein asmo?

Vilariñok etxean korritzen du han, eta ikusi behar. Europako Txapelketa jokatu zen bi urtean irabazita daukat Jaizkibelen, baina horrelako karrera bat irabazteak inbertsio handia eskatzen du (erruberak, gasolina...), eta astakeria da hori gastatzea, irabaztera behartuta ez gaudelako.

## Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa Bergaran jokatu da apirilaren 5ean

E.M.

Datorren urteko Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa Bergaran hasi eta amaituko da. Antolatzaileek lehen etapa horren berri eman zuten martitzenean, prentsaurrekoan. Besteak beste, Mikel Larrañaga eta Jose Luis Kortabarria "Kaxeta" Lokatzako ordezkariak eta Markel Irizar txirrindularia izan ziren kultura etxean.


Esan bezala, lehen etapa Bergaran jokatu da apirilaren 5ean. Tropeleko ziklista onenak gertutik ikusteko aukera izango dugu, beraz. Txirrindulariek 136 kilometroko ibilbidea izango dute, tartean Itziarko gaina, Elosu, Deskarga, Udana eta Asentzio mendateak izango dituztela. Helmuga Ibargarain jarriko dute. Bergaratik hiru aldiz igaroko da tropela. Azken kilometroetan, berriz, txirrindulariak Asen-

tziara igoko dira Angiozartik eta Elgetatik Zubietara jaitsiko dira. Infernukua taberna ondoko bihurtzetik sartuko dira Ibargarainko helmugara. Antolatzaileek saihebidetik Ibargaraira dagoen sarrera erabiltzea pentsatu zuten hasieran, baina Ibargarainko palmondoak txirrindularien esprinta oztopatuko zute la pentsatu zuten.

### LOKATZA ANTOLAKETA LANETAN

Lokatzak lehen etapa horren antolaketan lanean dihardu orain dela hilabete batzuetatik. Lokatzaren inguruan 40 lagun inguruko talde bat osatu da. Giroa pizten joateko Bergarako gaztetxoan artean logotipo lehiaketa deituko du antolaketa batzordeak.

Bergaran jokatu den etapak 42.000 euro inguruko aurrekontua izango du. Itzuliko bigarren etapa Bergaran hasi eta Zallan bukatuko da.



Martitzenean aurkeztu zuten Bergaran jokatu den lehen etapa.

SASKIBALOA

### Bi saskibalo partidu asteburuan kiroldegian

Kadete mailako Araneta taldeak Azpeitiaren aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 12:00etan. Urretxuri 20-88 irabazi zion zapatuan. Bestalde, kadete mailako nesken taldeak Oñati hartuko dute domekan, 12:00etan.

PILOTA

### Igor Gutierrezek finalerdietan galdu zuen Oñatin

Erroizenearekin bikotea osatuz, Igor Gutierrez pilotari bergararak ezin izan zuen San Migel Txapelketako finalerako sailkatu. Erroizenearekin eta Gutierrezek 19-22 galdu zuten Huizi-Txapartegi bikotearen aurka zapatuan. Finala bihar, urriak 4, jokatuko da Zubikoan, 22:30ean.

# Labegaraietako Futbito Txapelketan 32 talde lehian bihartik aurrera

E.M.  
Bihar, zapatua, hasiko da Labegaraietako Futbito Txapelketa. Agirrebeña eta Cosa Nostra taldeen arteko partiduak emango dio hasiera denboraldi berriari, 16:00etan, kiroldegian. Beste hiru partidu jokatu dira arratsaldeko jardunaldian. Domekan, berriz, hamaika partidu izango dira Labegaraietan, goiz eta arratsaldean.



Argazkian, A Ze Flaxa taldea, txapelketako faboritoetako bat.

ARTXIBOA

**HIRU MULTZO**  
Antolatzaileek hiru multzotan banatu dituzte 32 taldeak. Liga sistema jarraituta, multzo bakoitzeko onenak ligako *play-off*-etarako sailkatuko dira.

FUTBOLA

## Lehen erregional mailako taldeak Intxurre hartuko du zapatuan Ipintzan

Lehen erregional mailako futbol taldeak Intxurre hartuko du bihar, zapatua, Ipintzan, 16:30ean. Andoni Azkargortaren taldeak bana egin zuen Mutrikun aurreko jardunaldian.

Zapatuan beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: lehen mailako kadete taldeak Beti Gazteren aurka jokatu du 11:00etan. Bergarrek 0-6 irabazi zioten zapatuan Añorgari. Ohorezko mailako gazteek, berriz, Elgoibarren aurka neurtuko dituzte indarrak, 18:30ean. Dunboaren aurka 2-1 galdu zuen Bergarak zapatuan.

PILOTA

## Gipuzkoako Txapelketako partiduak Angiozarren eta Udal Pilotalekuan

Bergara KEko pilota sailak Gipuzkoako Txapelketari ekingo dio. Gaur, egubakoitza, kadete eta gazte mailako partiduak izango dira Angiozarren, 19:30ean. Lehen mailako kadete bikoteak Zegamako ordezkarien aurka jokatu du; jarraian bigarren mailako bergarar gazteek Donostiako Ikas Kirolaren aurka jokatu dute.

Domekan, berriz, senior mailako bikoteak San Esteban hartuko du Udal Pilotalekuan, 11:30ean. Bestalde, Ander Muguruzak DV Txapelketan hartuko du parte, Mintegirekin bikotea osatuta.

ESKUBALOA

## Kadete mailako lagunarteko partiduak jokatu dira zapatuan kiroldegian

Hastear dagoen denboraldirako prestatze partiduak jokatu dituzte kadete mailako taldeek. Bihar, zapatua, Bergara, Urola eta Legazpiko kadete mailako nesken taldeak kiroldegian izango dira lehian, 10:30ean hasita. Oihana Garmendia da bergararren entrenatzailea. Arratsaldean, berriz, kadete mailako mutilen txanda izango da. Xabier Lijok entrenatzen duen taldeak Urolaren eta Aloñaren aurka neurtuko ditu indarrak, 16:15ean hasita.

## LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**ZAPATUAN, KANPOAN**

- 16:00: Agirrebeña-Cosa Nostra **Kalaveras**
- 17:00: Kalaveras-Artusamak. **Vervenir**
- 18:00: Vervenir-Santana. **Torrekua**
- 19:00: De Resaka-Torrekua. **Santana**

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 09:30: Pirulotarrak-Txipiron. **Mongatxurak**
- 10:30: Aniketan-Mongatxurak. **Txipiron**
- 16:00: Fit Automocion-PDS. **Irubide**
- 17:00: Irubide-KGB. **Teatekh**
- 18:00: Teatekh-Argandolas. **Errotagain**
- 19:00: Errotagain-Belengua. **Egurra**

20:00: Ganbara-Egurra. **Belengua**

**DOMEKAN, KANPOAN**

- 16:00: Canalejas-Dedo Pafarru. **A Ze Flaxa**
- 17:00: A Ze Flaxa-Torpedo Musakola. **Fac**
- 18:00: Fac-TMT. **Bar Bedarreta**
- 19:00: Bedarreta-Pagomendi. **TMT**

ARMAZOIA+  
KRISTALA  
NAGUSIENTZAT

**50€** tik aurrera

eta kristal  
progresiboekin

**150€** tik aurrera

Eskaintza balagarri lente zuriendak \*6 esfera \*2 zilindro

**MULTIOPTICAS** -en

ARMAZOIA+  
KRISTALA\*  
UMEENTZAT

**55€** gatik bakarrik

\* Kristal sendo organikoak  
Lente zuriendako \*6 esfera \*2 zilindro

*bonardi* haizea  
ARMAZOIAK

**49€** gatik bakarrik

Multi-  
Eskaintzak

*bonardi* ARMAZOIAK

**32€** gatik bakarrik



Ibargarai 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA

Emakuntza balagarria 2003/09/16tik 2003/10/31ra, biak barne.

R.F.S. Nº 164/99 I.L.G.

Musikari dagokionez, Oskorri taldeak *Desertore* azkeneko lana aurkeztuko du azaroaren 28an Udal Pilotalekuan

# Gaur hasi eta Gabonak bitartean ekitaldi ugari ekarriko ditu Udazken Kulturalak

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, hasiko da Udaleko Kultura Sailak prestatzen duen Udazken Kulturala egitaraua. Udalaz gain, herriko hainbat taldek antolatutako ekitaldiak ere jasotzen ditu egitarau horrek. Gabonak bitartean askotariko emanaldiak izango dira.

Antzerkia, musika, hitzaldiak, erakusketak, bertso saioak... Udazken Kulturalak hainbat arlo jorratuko ditu urrian, azaroan eta abenduan. Gaur hasi eta Gabonak bitartean zabalduko da kultura eskaintza hori eta Goringo taldeak irekiko du: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanaren egingo du gaur, 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

Berrogei emanaldi inguruk osatzen dute egitaraua: urrian 14 emanaldi egongo dira; azaroan 12 eta abenduan 11, Gabonetakoez gain. Horrekin batera, hiru hilabete horietan barrena bost erakusketa egongo dira: argazki, eskulan eta pintura erakusketak, hain justu ere. Emanaldiok herriko hainbat gunetan izango dira: kalean, Udal Pilotalekuan, Zabalotegin, Novedadesen, udaletxe-ko areto nagusian... Gehienak, gainera, doan izango dira.

## ASTE BURU HONETAN ANTZERKIA ETA MUSIKA

Asteburu honetan dagoeneko bi emanaldi izango ditugu: batetik, gaur, egubakoitza, Goringo antzerki taldeak *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* lana egingo du Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Joxean Sagas-



Oskorri taldeak *Desertore* disko berria aurkeztuko du Udazken Kulturalaren barruan.

*Berrogei emanaldi inguruk osatzen dute Udazken Kulturala eskaintza; gehienak, doan*

*Lehen ekitaldia gaur, egubakoitza, da. Goringo taldeak 'Kutsidazu bidea, Ixabel' egingo du*

*Azaroaren 28an Oskorri taldeak 'Desertore' azkeneko lana aurkeztuko du Udal Pilotalekuan*

tizabal idazlearen eleberriz eza-gunaren egokitzapena da; hala ere, liburua funtsari eutsi egin diote antzerki taldekoek. Liburua irakurri duenak Juan Martin, Ixabel, Morgan, amona... ikusiko ditu Goringoren antzezlanetan. Juan Martin euskaldun berria da *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* lane-ko protagonista, eta bere bitartez ulertzen da istorioa. Juan Martin Alkizako euskaltegiaren dago, eta Harrialdeko Aranguren base-rrira joango da euskara hobetzera. Baina han entzuten duen euskara berak ikasitakoaren ezberdina da. Hasieran ez du tutik ulertuko eta entzuten duena swahilia irudituko zaio.

Bihar, zapatua, Jardun elkar-terko trikitilari taldeak kalejira egingo du 12:00etan eta 19:00etan Anastua Jazz Perku Band talde-ak emanaldia egingo du Munibe plazan. Gasteizetik datoz eta estilo aniztasuna dute oinarrian: jazz edo bluesaren kantu klasikoak zein autore abestiak.

Datorren asteari begira, martitzenean, urriaren 3an, Udal Agiritegiak antolatutako Euskal Herriaren gaineko hitzaldi sorta hasiko da berriz. 19:30ean izango da, Migel Altunak. Jose Antonio Azpiakuz egingo du eta jorratuko duen gaia da: *Aspaldiko Bergara: industria eta merkatalgoa. Guraize eta lan famatuak*.

Aurrerago egongo diren ekitaldien artean, aipatzekoak dira, besteak beste, datorren egubakoitzean Juan Luis Bikuñak Elosuren gainean aurkeztuko duen liburua eta Oskorri azaroaren 28an egingo duen kontzertua.

## Udazken Kulturalako egitarauaren barruan bada zer ikusi, entzun...

### URRIAK 3:

**Udal Pilotalekua, 22:30:** *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlan, Goringo taldearekin.

### URRIAK 4:

**Herriko kaleetan, 12:00:** Jardun elkarte trikitilari taldea.

**Munibe plazan, 19:00:** Anastua Jazz Perku Band taldearen emanaldia.

### URRIAK 7:

**Migel Altuna, 19:30:** Historia hitzaldia: *Aspaldiko Bergara: industria eta merkatalgoa. Guraize eta lan famatuak*. Hizlaria: Jose Antonio Azpiakuz.

### URRIAK 10:

**Udaletxe areto nagusia, 19:30:** *Iraun*, frantses urrea eta *Elosu* liburua aurkeztuko du Juan Luis Bikuñak.

**Novedades, 22:00:** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa.

### URRIAK 11:

**Udaletxe areto nagusia, 19:30:** Javier Arrillagaren kontzertua.

### URRIAK 15:

**Udaletxe areto nagusia, 19:30:** Hitzaldia: *Nekazaritza eta elikadura globalizazioaren aurrean*. Hizlaria: Paul Nicholson.

### URRIAK 17:

**Mariaren Lagundiko eliza, 19:30:** Musika jaialdia: Bergarako Musika Eskola eta San Joxepeko abesbatza.

### URRIAK 18:

**UNEDeko areto nagusia, 20:00:** Bertso eskolaren *Bertsokolax* ikuskizuna.

### URRIAK 19:

**Udal Pilotalekua, 12:30:** Udal Musika Bandaren emanaldia.

### URRIAK 24:

**Novedades aretoa, 19:00:** San Joxepeko Hamabostaldi Kulturalaren idazlan lehiaketako sari banaketa eta Fredi magoa.

### URRIAK 26:

**Udal Pilotalekua, 18:00:** Txan magoa.

### URRIAK 30:

**Zabalotegi aretoa, 19:00:** Angel Cuervo Galarraga bidaiariaren *Nilo*, *Afrikako altxorra* ikus-entzuzkoa.

### AZAROAK 4:

**Migel Altuna, 19:30:** Historia hitzaldia.

### AZAROAK 6:

**Udaletxe areto nagusia, 19:30:** Hitzaldia: *Eguraldi iragarpenak: tenporak ala isobara mapak?*. Hizlaria: Pello Zabala.

### AZAROAK 7:

**Zabalotegi aretoa, 22:30:** Bresciako (Italia) *Fabbrica del Vento* antzerki taldearen *Sgòrbypark* antzezlan.

### AZAROAK 8:

**Munibe plaza, 17:00:** Detraka taldearen *Zirkus Mirkus* antzezlan.

### AZAROAK 13:

**Novedades aretoa, 20:00:** Film laburrak.

### AZAROAK 15:

**Mariaren Lagundia, 20:00:** Donostiako Arala abesbatzaren emanaldia.

### AZAROAK 16:

**Herriko kaleetan, 11:30:** Udal Musika Bandaren kalejira

**Udal Pilotalekua, 12:30:** Udal Musika Bandaren kontzertua.

### AZAROAK 22:

**Mariaren Lagundia, 19:30:** Castro Urdialesko Camerata Vocal Sottovoce taldearen emanaldia.

### AZAROAK 27:

**UNEDeko areto nagusia, 19:30:** Ina Ruforen diapositiba emanaldia: *Transeuropa 2001*.

### AZAROAK 28:

**Udal Pilotalekua, 22:30:** Oskorriren *Desertore* diskoaren aurkezpena.

### AZAROAK 29:

**Zabalotegi aretoa, 19:30:** Gabero taldearen emanaldia.

### ABENDUAK 2:

**Kultura etxea, 19:00:** Guatemalaren gaineko Ellen Davyseben *Tierra madre* ikus-entzuzkoa.

**Migel Altuna, 19:30:** Historia hitzaldia

### ABENDUAK 3:

**Kultura etxea, 19:00:** Guatemalaren gaineko *Las quimeras del diablo* ikus-entzuzkoa

### ABENDUAK 4:

**Kultura etxea, 19:00:** Guatemalaren gaineko *Ajaju* ikus-entzuzkoa

### ABENDUAK 5:

**Zabalotegi aretoa, 22:30:** Oihulari Klown eta Trokoloren *De profesión princesa* antzezlan

### ABENDUAK 6:

**Santa Marina eliza, 20:00:** Soraluzeiko Esoziko Ama eta Bergarako Aritzeta abesbatzen emanaldia

### ABENDUAK 9:

**Udal Pilotalekua, 19:00:** Musika Eskolako ikasleen kontzertua

### ABENDUAK 12:

**Gabonetako argiak piztuko dituzte eta jaiotza ikusgai jarriko dute**

### ABENDUAK 13:

**Udaletxe areto nagusia, 19:30:** Ainhoa Zubillaga mezzosopranoaren, Esther Mendiburu piano jotzailearen eta Francisco Herrero biola jotzailearen kontzertua

### ABENDUAK 18:

**UNEDeko areto nagusia, 19:30:** Jose Ramon Agirre Marron-en ikus-entzuzkoa emanaldia eta solasaldia: *Tibet, gizakia hegan*. 0-8.000

### ABENDUAK 20:

**Udal Pilotalekua, 22:00:** Gabonetako kontzertua

GUREGAIK/ JARDUN

# Txiskrilabik ikasturte berriari ekingo dio

AINTZANE IRIZAR

**Jardun euskara elkarteko Txiskrilabi taldeak urriaren 11n ekingo dio ikasturte berriari. 12 eta 16 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta urriaren 9ra arte duzue izena emateko aukera.**

Adin tarte horretako gaztetxo-  
endako aisialdi jarduera eskasa zegoela eta, iazko ikasturtean sortu zuen Jardunek Txiskrilabi. Talde horrekin, Jardunek arduradunen helburua da gaztetxoei aisialdirako eskaintza egitea eta euskara bultzatzea.

Txiskrilabi barruan bi talde egongo dira: 12 eta 14 urte bitartekoak eta 14 eta 16 urte bitarte-

koak. Zapaturo elkartuko dira Txiskrilabiko kideak, Arrizuriaga jauregian. 12 eta 14 urte bitartekoak 16:00etatik 18:00etara; beste taldea, berriz, 18:00etatik 20:00etara.

Bi begirale izango dituzte gaztetxoek: Ugaitz Catalan eta Amaia Ortiz de Urbina, hain zuzen ere.

Denen artean, begirale eta gaztetxoaren artean, zapatu arratsaldeak pasatzeko hainbat jarduera antolatu ahal izango dituzte: eztabaidak, irteerak, jolasak, tailerrak...

Esan bezala, datorren eguean, hilak 9, bukatuko da izena emateko epea. Jardunen bulegora jo beharko duzue, Errotalde jauregira. Ikasturteko matrikula 15 euro da.



Iaz Txiskrilabi taldean ibilitakoak.

LOTSABARIK/ Kristina Pozo

## “Txutxu-mutxuak asko gustatzen zaizkit”

AINTZANE IRIZAR

**Ez pentsa Kristina kontakatila denik; telebistako txutxu-mutxu saioak gustatzen zaizkio, beste barik. Taberna baten egiten du lan, eta oso gustuko du bere lana; pentsa, horixe da bere zaletasuna!**

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteendako egitarau zabal antolatuko nuke eta lan esparruaren gainean zerbait ikasteko ekimenak bultzatuko nituzke.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Gaztetxotan izaten nituen, baina gaur egun, ezer ere ez.

• Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?

*Dia a dia*; gustukoena, berriz, *Aquí hay tomate*, txutxu-mutxuak asko gustatzen zaizkit-eta.

• Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?

Isabel Pantoja ez zait gustatzen; gustukoena, Euzkitze.

• Zerk amorratzen zaitu?

Jendearen faltsukeriak.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Pertsona ona izatea eta lagunei laguntzeko prest egotea beti.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Ongi bizitzeari eta osasunari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Nik uste dut lagun ona naizela; akatsa, berriz, jeno bizikoa naizela.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Ni tabernako zerbitzaria naiz, eta handik ikusten dudanez, jendeak edaten duenean ligatzen du gehien.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?


Nire mutil-laguna bezalakoa: pertsona ona eta nirekin egongo dena.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Islandiara joango nintzateke, mutil-lagunarekin.

• Etorkezinerako amets bat?

Lana edukitzea eta ondo bizi izatea.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Nire lana, zerbitzari lana • LIBURU BAT: ‘Vuelta al pasado’, Agatha Christierena • FILM BAT: ‘XXX’ • MUSIKA TALDEA: Ken7 • KIROL TALDEA: Reala

BERRIGARA  
Egunkaria / 2003ko urriaren 3a

E, TXO!

**II. ZERNOLA OLINPIADA HIL HONETAN HASIKO DA**

Urriaren hasiko da II. Zernola Olinpiada. [www.zernola.net](http://www.zernola.net) Elhuyarrek gaztetxoei zuzendutako webgunea du. Webgune horren helburua da zientzien esparrua dibertigarrian helaraztea gaztetxo horiei. Helburu horrekin lotuta, Zernola Olinpiada antolatu zuten iazko ikasturtean lehen aldiz. DBHko lehen eta bigarren ikasturteetako gaztetxo-  
endako antolatu dute olinpiada, eta ikastetxe-  
tako ikasgelek har dezakete parte. Urriaren hasi eta apirilaren bukatu-  
ko da lehiaketa; irabazle-  
ek Urbasako aterpetxe-  
baten egonaldia irabaziko  
dute. [www.zernola.net](http://www.zernola.net)  
atarian bertan eman dezakezue izena.

**KUTXA FUNDAZIOAREN LITERATURA SARIAK**

Kutxa Donostia Hiria literatura sariak antolatu ditu Kutxa Fundazioak. Lau mailatan banatuta dago lehiaketa hori: gaztelaniazko ipuina eta antzerki lana eta euskarazko ipuina eta antzerki lana.

Urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira lehiaketarako lanak. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunera jo dezakezue edo telefono honetara deitu: 943 41 11 57.


**JUAN SAN MARTIN BEKARAKO DEIALDIA**

Botanikaren edo mendizaletasunaren gaineko ikerketa egiteko beka deialdia egin du Eibarko Udalak. Urriaren 10era arte duzue eskaerak egiteko epea. Informazio zabalagoa topatuko duzue [www.gipuzkoa.net/eibar](http://www.gipuzkoa.net/eibar) webgunean.

**TIRABIRAKA/ Joseba Lasa**



ZAHARREN ETXETIK



Mikel Laskurainek koloreetako lehen saria eskuratu du *Alkarrekin etorkizuna landuz* lanarekin.



Juan Antonio Untzurrunzagak sari berezia eskuratu du *Futuro carpintero* lanagatik.

# Fernández eta Laskurain, Argazki Lehiaketan irabazle

EDU MENDIBIL

Javier Fernandez berangarra (zuri-beltzeko kategorian) eta Mikel Laskurain bergararra (koloretan) izan dira erretiratuek deitutako Argazki Lehiaketako irabazleak. Jose Ramon Murgoitio, Benito Cante-

ro eta Juan Idigoras bergararrek osatutako epaimahaiak egubakoitzean eman zuen saritutakoen berri. Zuri-beltzeko bigarren saria Josean Araneza bergararrak eskuratu du eta koloreetako bigarrena Antonio Jesus Perez sevillarrarentzat izan da. Irabazleek 120 euroko sari bana jaso-

ko dute eta bigarren saria irabazi dutenek 90 euro eskuratuko dituzte. Era berean, epaimahaiak Juan Antonio Untzurrunzagari sari berezia ematea erabaki zuen, *Futuro carpintero* izenburuko lanagatik.


Lehiaketara hamahiru lan aurkeztu dira eta argazkizaleek

*Edadetuak, gizarte-aldaketaren bultzatzaile* gaia landu beharra zeukaten, horixe izango da eta hastear dagoen Kultur Hamabostaldiko leloa.

**ERAKUSKETA ERRETIRATUETAN**

Kultur Hamabostaldiari begira San Joxepe erretiratuen elkarteak

antolatutako margo eta argazki lehiaketetako sari banaketa gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:00etan, erretiratueta. Era berean, erakusketa zabalik egongo da urriaren 10era bitartean, aste barruan 18:00etatik 21:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



**VII. Kultur Hamabostaldia**

Datorren eguenean, urriaren 9an, erretiratuek antolatutako VII. Kultur Hamabostaldiko hasiera ekitaldia izango da Miguel Altuna institutu-ko aretoan, 19:30ean. Jose Miguel Blanco Euskal Herriko Unibertsitateko Kalitatezko Katedrako zuzendariak *Los mayores, agentes de cambio social. ¿Por qué y cómo?* izenburuko hitzaldia egingo du. Besteak beste, Esther Larrañaga Gizartekintzako diputatua eta Victoriano Gallastegi alkatea egongo dira egueneko aurkezpenean.

**LABUR**

**Erretiratuen irteera Karrantzara urriaren 15ean**

Kultur Hamabostaldiko programazioaren barruan, Antzuolako eta Bergarako erretiratuek urriaren 15ean Karrantzara joateko irteera antolatu dute. Egun osoko irteera izango da. Besteak beste, Pozalaguako kobazuloetan eta Carpineko Parkean bisitaldi gidatuak egingo dituzte. Izenematea eguaztenera arte, urriak 8, egongo da zabalik erretiratuen egoitzan. Argibideak, ohi bezala, 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso daitezke.

**OGIZUN**

koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

**KONDE PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**GOIERRI**  
**AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskoñuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da ermita baten ondoan dagoen baserri horren izena?

GALDEDEBALDE

- |  |   |  |
|--|---|--|
| <p><b>1.</b><br/>Noiz banandu ziren Angiozar eta Ubera Elgetatik?<br/><br/>A/ 1927ko martxoan.<br/>B/ 1952ko apirilean.<br/>C/ 1973ko uztailean.</p> | <p><b>2.</b><br/>Zenbatgarren kultur hamabostaldia ospatuko dute Antzuola eta Bergarako erretiratuek?<br/><br/>A/ Laugarrena.<br/>B/ Seigarrena.<br/>C/ Zazpigarrena.</p> | <p><b>3.</b><br/>Non jokatu da Euskadiko Txapelketako azken auto igoera?<br/><br/>A/ Urrakin.<br/>B/ Arraten.<br/>C/ Jazkibelen.</p> |
|--|---|--|



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSEBA ELORZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Joseba!  
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ernio** / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Timotei xanpua**

500 ml. 3x5,30 euro

**5,30€**

882 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK


Martzial Agirre (1)

KOLDO PEREIRA

**M**artzial Agirre eskultorea Bergaran jaio zen 1840ko azaroaren 22an, San Antonio auzoko La Algodonera lantegiaren barruan zegoen etxean. Aita, Joakin Agirre, irute eta ehungintza lantegiko akzionista nagusia zen eta horregatik bizi zen enpresan bertan. Horrez gainera, San Antonio auzoan jabetza gehiago zituen.

Martzialek Bergarako Errege Seminarioan egin zituen lehen ikasketak, eta gero Arantzazuko Ikastetxera joan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak beka bat eman ondoren, Erromara joan zen 1864ko uztailean, eta bi urtez ikasi zuen han. Togletti eta Obici eskultoreen taillerretan ikasi eta praktikatu zuen. Biak estilo neoklasikoa landu zuten zuten maisuak ziren. Gauetan marrazki eskoletara joaten zen. Erroman, besteak beste, Palmaroli, Esquibel, Fortuny eta Rosales ezagutu zituen. El Greco kafean. Agirre eta Rosales lagun handiak egin ziren, eta adiskidetasun haren adierazle dira pintore madrildarrak bergararrari egindako erretratu ugariak eta bi artistek Bergarara egindako bidaia.

*Erromara joan zen 1864ko uztailean eta bi urtez ikasi zuen Italian*



ARTXIBOA

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**ETXAGI**  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**DEBA**  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



gizon & emakume

Barrenkalea 35  
BERGARA



BERGARA  
**Jennifer Caballero**  
Urriaren 4an, 2 urte.  
Zorionak! Guraso Luis eta Rosa eta senideak.



BERGARA  
**Paula Cordero**  
Urriaren 3an, 6 urte.  
Zorionak! Aiton-amonak, eta osaba-izebak.



BERGARA  
**Maria Cordero**  
Urriaren 4an, 9 urte.  
Zorionak! Aiton-amonak, osaba eta izebak.



BERGARA  
**Peio Irizar**  
Urriaren 1ean, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ibon Munategiandikoetxea**  
6an, 2 urte. Zorionak!  
Gurasoak eta Markel.



BERGARA  
**Nerea Aginagalde**  
Irailaren 30an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA  
**Maria Aginagalde**  
Urriaren 9an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Mikel eta Nerea.



ANTZUOLA  
**Mikel Jauregi**  
Urriaren 9an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Gorka Heis**  
Urriaren 7an, 11 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta arrebak.



BERGARA  
**Irati Bretaña**  
Urriaren 4an, 5 urte.  
Zorionak!. Gurasoak eta bereziki, Lander.



BERGARA  
**Nerea Julian**  
Urriaren 4an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Aimar.



ANTZUOLA  
**Jon Zubillaga**  
Urriaren 4an, 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Joseba Elorza**  
Urriaren 6an, 7 urte.  
Zorionak!. Etxekoak,  
bereziki, Andoni.



BERGARA  
**Maria Cid**  
Urriaren 8an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ainhoa Pardina**  
Urriaren 2an, 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Irene Jauregi**  
Urriaren 8an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Aita eta ama.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua



BERGARA  
**Irene Jauregi**  
Urriaren 4an, 31 urte.  
Zorionak! muxu handi bat!  
Lankideak.

# Zorionak!



Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.




# GRUPO **RKUZ** 1950-2003


Zure  
etxea da




Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**




Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko urriaren 3a / 172. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Udala dirulaguntzak ematen hasi zenetik, zazpi igogailu jarri dituzte

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko bi urteotan herriko zazpi etxebizitzatan jarri dituzte igogailuak. Antzuolako Udalak dirulaguntzak ematen ditu horretarako. Aurreko agintaldian onartu zuen Udalak laguntza horiek ematea, irisgarritasun arazoei aurre egiteko helburuarekin.

Duela bi urte erabaki zuen Udalak igogailuak jartzeko dirulaguntzak ematea herritarrei. Orduetik hona herriko zazpi etxebizitzatan jarri dituzte igogailuak: Ibarreko bietan eta Errekalde auzoko bost etxebizitzatan. 15.000 euro inguruko laguntza ematen du Udalak, aurrekontuaren %20 edo %25, gutxi gorabehera.

Irisgarritasun arazoei aurre egitea izan zen dirulaguntza horiek onartzeko arrazoia. 1960ko eta 1970eko hamarkadetako etxebizitza ugari dago Antzuolan, eta horietako askok ez daukate igogailurik. Bizilagunak, gainera, gero eta helduagoak dira; horren ondorioz, irisgarritasun arazoak ere gero eta handiagoak dira.

Dirulaguntzak lortzeko eta igogailuak jarri ahal izateko ez da baldintza askorik bete behar;



Errekalde auzoko bost etxebizitzatan jarri dute igogailua azkeneko bi urteotan.


izan ere, nahikoa da bizilagun gehienak ados jartzea. Orain indarrean dagoen legeak ez du eskatzen bizilagun guztiak ados jartzea; horrela, oztopo arkitektonikoak kentzeari ematen diote lehentasuna.

### ETxebizitza askok dute aukera

Dirulaguntzak ematen hasi zenean, azterketa egin zuen Udalak; orduan aztertu zuten ze etxebizitzatan zegoen igogailua jartzeko aukera. Azterketa horren arabera, Beheko auzoko etxebizitzek,

Lizarragako batek eta Antigua eta Errekaldeko guztiek dute aukera hori.

Interesa dutenek Udalaren eta Mankomunitateko Suradesa aholkularitza zerbitzuaren laguntza izango dute.



### Frontoi Txikia inauguratu dute

Herri Ikastetxeko frontoi berria inauguratu zuten aurreko egubakoitzean, eta Frontoi Txikia izena jarri diote. Hantxe izan ziren eskolako irakasle eta ikasleak, baita Aitor Elkoro pilotaria ere. Neska-mutikoei Aitorrekin jokatzeko aukera izan zuten; ez dakigu nork irabazi zuen norgehiagoka, baina ondo baino hobeto pasatzeko aukera izan zuten denek. Frontoia txikia da, baina eskolako ikasleei beste kirol bat praktikatzei aukera eskainiko die hemendik aurrera./A.I.

### LABUR

#### Munduko biraren gaineko emanaldia eguenean

Eguenean, hilak 9, *Munduko bira bizikletaz* diapositiba emanaldia izango dugu Olaran etxean, 18:30ean. Orain dela hilabete batzuk bukatu zuen Eneko Etxebarrietak bidaia hori; lau urte behar izan ditu eta 46.000 kilometro egin ditu bizikletaz. Guztira, 36 herrialdetan egon da.

#### Idolaz elkartek beste etapa bati ekin dio

Uztailean batzar berezia egin zuen Idolaz elkartek, etorkizunean zer egin erabakitzeko. Aurrera segitzeko erabakia hartu zuten, eta ekin diote lanari. Elkarteko talde berriak egin du dagoeneko lehendabiziko batzarra, eta poliki-poliki taldea sendotzea da orain duten helburu nagusia.

#### Ur deposituko hoditeria berritzen dihardute

Sagasti auzoko zelaian hainbat lan egiten dihardute orain dela pare bat astetik; Estalako ur depositura doan hoditeria konpontzen eta berritzen dihardute hantxe. Ur depositu hori herriko iturburuetatik hartutako ura kudeatzeko erabiliko dute etorkizunean.

#### Hirigune historikoa birgaitzeko plana onartzekoak ziren

Gaur, egubakoitza, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia onartzekoak ziren osoko bilkuran. Inaki Berasategi arkitekto bergararrak egin du plan berezi hori. Behin plana onartuta, jendaurrean jarriko dute, jendaurrean jarriko dute, jendeak alegazioak egin dituzan. 2002ko urtarrean plan horren aurrerapena egon zen ikusgai.

ERRETIRATUAK

# Kultur Hamabostaldia datorren eguenean, hilak 9, hasiko dute

**ANTZANE IRIZAR**  
Urtero moduan, aurten ere Kultur Hamabostaldia antolatu dute Antzuolako eta Bergarako erretiratuek.  
Gaur bertan, egubakoitza, hamabostaldirako erabiliko duten kartela aurkeztuko dute.

**HITZALDIAK, EKITALDIAK ETA IRTEERAK**  
Datozen bi asteotarako ekitaldi ugari antolatu dituzte erretiratuek. Guztiak Bergaran izango dira; aurten ez dute ekitaldirik antolatu Antzuolan.  
Eguenean, hilak 9, EHUko irakasle Jose Migel Blancok hitzaldia egingo du Migel Altuna ins-

titutuan, 19:30ean. Pertsona nagusiek gizartea aldatzeko agente moduan duten paperaren gainean jardungo du. Datorren egubakoitzean, berriz, hilak 10, jaialdia egingo dute San Joxepe elkarte- an, 18:00etan. Hilaren 25era arte hainbat ekitaldi eta irteera egingo dituzte.



**Helduen Eskolan bederatzi ikasle**  
Orain dela zortzi bat urte hasi ziren Antzuolan eskolak ematen. Ordura arte Bergarara joaten ziren hainbat antzuolar, Helduen Heziketa Iraunkorreko eskoletara. Aurreko astean ekin zioten ikasturte berriari bederatzi lagunek, Marije Izagirre irakaslearekin. Ikasle guztiak emakumeak dira. Herri Ikastetxeko ikasgela baten izaten dituzte eskolak, eta denetik ikasten dute. Bakoitzaren beharren eta ahalmenaren arabera ikasten dute. Urte osoan dago izena eman eta ikasten hasteko aukera. /A.I.

KIROLA

# Herriko pilota txapelketan izena emateko epea zabalik dago

**A.I.**  
Oialde elkarteak herri mailako eskuz binakako pilota txapelketa antolatu du. Bi mailatan jokatu dute txapelketa hori, eta 15 urtetik gorakoendako izango da. Urrian hasiko da txapelketa.  
Juan Tomas Erostegei, Juan Simon Aristi, Josu Zabalo edo

Balendin Zabalorenana jo behar-ko duzue izena emateko, urriaren 10a baino lehen.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**  
Bestalde, Gipuzkoako Pilota Txapelketa oraingo asteburuan bertan hasiko da. Zapatuan, 17:30ean, Antzuolan jokatu dute lehen- dabiziko partidua, eskuzko txapelketan diharduten nagusiek, Josu Agirrek eta Xabier Biterik, Usurbilgo Andazpe elkartekoen aurka. Kadeteen mailan, Aitor Jauregik, Aitor Mendizabalek eta Asier Longaresek jokatu dute txapelketan; palaz, Gotzon Zabalo eta Iker Mansok; eta infantil mailan, azkenik, Aitzol Iturbek eta Ibai Zabalo.

pelketan diharduten nagusiek, Josu Agirrek eta Xabier Biterik, Usurbilgo Andazpe elkartekoen aurka. Kadeteen mailan, Aitor Jauregik, Aitor Mendizabalek eta Asier Longaresek jokatu dute txapelketan; palaz, Gotzon Zabalo eta Iker Mansok; eta infantil mailan, azkenik, Aitzol Iturbek eta Ibai Zabalo.

KIROLA

**HERRITARREN HITZA /** Usua Agirre · Kazetaria

## Antzuola: logela herria

Azken aldian ahoz aho dabil esaldi hori. Etxe berri asko egin dituzte herrian eta inguruko herrietako etxeen salneurriak ikusirik, Antzuolara etortzea erabaki du kanpoko jende askok. Eta beste herri batekoa izanda, familia eta lagunak ondoko herrian edukita, normala da Antzuolara lo egitera bakarrik etortzea. Nik horixe egingo nuke Bergaran etxea erosiz gero.  
Baina Antzuola ez da Bergara, herri txikia da eta denok ezagutzen dugu elkar. Guztiok jabetu gara jende berria dagoela herrian, ezagu-

tzen ez dugun jendearekin egiten dugu topo okindegian edo harategian. Era guztietako komentarioak entzun ditut honen inguruan: bizilagun berriak ez direla integratzen herrian; lo egitera bakarrik etortzen direla; etxe gehiago egin behar-ko lituzketela herrikoentzat eta ez kanpokoentzat...  
Komentario batzuk asmo txarrik gabekoak badira ere,



“Utz diezaiogun antzuolar izan nahi duenari antzuolar izaten”

badira horrelakoak maleziaz esaten dituztenak, eta horrelako jarrerarekin ez goaz inora. Jendea herrian integratzea nahi badugu (eta nahi ez duenak segi dezala berean), has gaitzen horrelako komentarioak saihesten eta jarrera hobea hartzen. Ez dut esan nahi Antzuolak “logela herria” izateari utziko dionik, baina benetan herritar

izan nahi duenak errazagoa izango du bidea.  
Nik ere herritarrentzako etxe gehiago nahi nituzke, baina kanpokoei ezin diegu etxe bat erostea ukatu, ezta herrian bizitzea ere. Batzuei kosta egiten zaie bikotekidearen herrira joan eta han integratzea, eta zer esanik ez biak badira kanpokoak. Utz diezaiogun antzuolar izan nahi duenari antzuolar izaten, eta nahi ez duenari, utzi behintzat herrian integratzen. Nire ama ere herrian oso integratuta zegoen, baina gabiriarra izan zen bizi guztian.

**PARTIDUAK**

**FUTBOLA**  
Urriak 4  
16:00: Antzuola-Arrate (Kadeteak)

**PILOTA**  
Urriak 4 (Gipuzkoako Txapelketa)  
17:30: Oialde-Andazpe (eskuz nagus.)

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Urki 1 Antzuola 2 (2. erreg.)  
Antzuola 1 Urki 1 (Gazteak)  
Antzuola 2 Elgoibar 5 (Neskek)

**LARREA**  
**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalasa*

Apainketarako eta industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

*Tomas Gezalasa*

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko urriaren 3a / 156. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Xabier Ubera pilotariak DV Txapelketan hartuko du parte Argote zarauztarrarekin


IRATI AGIRREAZALDEGI

Azkenaldian Elgetan pilota gainerako kirol guztien gainetik jarri dela dirudi. Batetik, urriaren erditik aurrera abian ipiniko da beteranoendako lau t'erdiko esku pilota txapelketa. Bestetik, Ubera II.a pilotari elgetarrak DV Txapelketan hartuko du parte.

Hamabi bikotek eman dute izena beteranoen mailako esku pilota txapelketarako. Lau t'erdia barruan pilota bigunekin jokatuko dute guztiek. Oraindik erabakitzeko dago noiz jokatuko diren partiduak. Izan ere, jokalariek lan egiten dutenez, denon artean zehaztu beharko dute ordutegia. Horretarako, antolatzaileek bilera baterako dei egingo die parte-hartzaileei. Hala ere, seguruenez bariku iluntzetan edo zapatu goizetan izango dira norgehiagokak.

### UBERA II.A

Bestalde, bihar, hilak 4, DV Txapelketa hasiko da, eta Xabier Ubera pilotari elgetarra izango dugu bertan. Ubera II.ak Argote zarauztarrarekin osatuko du bikotea.



Ubera II.ak DV Txapelketa irabazi zuen 2001ean, eta beste hainbatetan finalista izan da.

Argote jokorako egokia dela esan digu Ubera II.ak. Ubera txapeldun izan zen 2001ean eta beste hainbatetan finalera iritsi da. Bere ibilbidea kontuan hartuta, aur-

tengo faboritoetako bat da. Hala ere, zera esan digu Xabier Uberak: "Txapelketan maila altua egongo da eta zortzi bikote aurre-samarrean ibiliko gara. Dena

dela, beti egoten dira ezustekoak, eta gure asmoa ahalik eta gutxien egotea eta gu geu finalera iristea da. Hori da txapelketaren atarian dudak helburua".

*Beteranoen txapelketan herriko hamabi bikotek jardungo dute urri erditik aurrera*

Txapelketa urriaren 4an hasiko da, Getarian eta Ezkarain, eta guztira 72-pilotarik hartuko dute parte. Ubera II.ak, ordea, ez du torneo azaroaren 28ra arte hasiko. Mallabiko pilotalekuan jokatuko du lehen partidua. Eta norgehiagoka irabaziz gero hurrengo saioa Urretxun izango du abenduaren 12an. Finala, berriz, abenduaren 27an jokatuko da Zarauzko Aritzatalde frontoian.

Aurkari gehienak ezagunak ditu Ubera II.ak. Izan ere, maila horretako txapelketa eta partidu gehienetan pilotari bertsuek jarduten dute.

Faboritoetako bat izanik, herriko pilotariak maila egokia erakutsiko du seguru DV torneoan. Orain gutxi ere Lodosako txapelketan ez da alperrik finalera ailegatu.

## JENTREBISTAK/ Zelan ikusten duzu garraio publikoa Elgetan?



JESUS BELAMENDIA  
39 urte

Oso gaizki dago. Lehen gutxi zegoen eta orain gutxiago. Nik neuk ez daukat arazorik, baina eskolara eta ospitalera joan behar dutenek bai.



GLORIA PINTO  
45 urte

Gaizki dago. Ospitalean senideak izan ditudanean bertara joateko arazoak izan ditut, baina Bergarara mugitzeko ere. Gehiago behar dira.



ANA MARI ARRIETA  
36 urte

Autobus gutxi pasatzen da eta nik ez dut garraio publikorik erabiltzen, daudenak nire ordutegira egokitzen ez direlako. Soluzio zaila du arazoak.



JOKIN ARANZABAL  
21 urte

Oso gaizki. Ez daukat autorik eta beharrezkoa da. Besterik ez bada autobus txiki bat ipini beharko lukete, baina jende gehienak autoa duenez...



FELISA BASAURI  
75 urte

Errehabilitaziora joaten naiz, eta autobus bakarra dagoenez, goiz osoa galtzen da. Udalak banatu duen papera bete eta eraman dut.

## LABUR

### Masaje ikastaroa ume txikien gurasoendako

Abian da 15 hilabete arteko umeen gurasoendako antolatu duten masaje ikastaroa. Martitzen arratsaldeetan izaten dira saioak, 17:00etatik 18:00etara, Herri Eskolako psikomotrizitate gelan. Ana Gillegi da irakaslea, eta masajeen bidez honako helburuak lortzea da guraso eta arduradunen nahia: umeen eta gurasoen arteko lotura afektiboak sendotzea, gaixotasunei aurre hartzea, umea lasaitzea eta umeek hobeto lo egin ahal izatea, hain zuzen ere.

ELKARRIZKETA

ASUN MARTINEZ/'TAI-CHI'-KO IRAKASLEA

*"Berez 'tai-chi'-a gorputzari oreka eta harmonia emateko mugimendua da"*

I.A.  
Udaleko kirol eskaintzen artean aurtengo berrikuntza *tai-chi*-a da. Ikastaroko irakaslea izango den Asun Martinezekin izan gara, eta Asunek elgetarrak animatu nahi ditu eskoletan parte har dezaten.


**Zer da tai-chi-a?**  
*Tai-chi*-aren oinarritzko helburua gorputzari oreka eta harmonia eskaintzea da. Mugimendu suabeen bidez, fisikoa landu, arnasketa erregulatu, burua kontzentratu, emozioak baretu... egiten dira. *Tai-chi* hitzaren parekoa *oreka* dela esan daiteke. Eman arrazoiren bat jendea *tai-chi*-a praktika dezan.

Pertsona bera oso-osorik lantzen duenez, *tai-chi*-a jarraian praktikatzuz gero gorputza lasaitzeko eta burua erlaxatzeko oso modu egokia dela esango nuke.

**Zer lantzen da tai-chi-an?**  
Formak lantzen dira; modu kateatuan eta erritmikoki egindako mugimenduak, hain zuzen. Formak lantzeaz gain, bikotekako ariketak egiten ditugu eskoletan. Horrela sentikortasuna garatzen da. Bestalde, *chi-kung* delakoa ere egiten dugu. Hau da, pertsona oso-osorik hartu beharrean, atal bat lantzen da konkretuki: gorputza, burua... Norberak aukeratzen du zein arlo landu nahi duen.

**Mugimendu lasaiak dira. Tai-chi-an izerditzen da?**  
Erlaxatzeko saiakeran izerdi daiteke, baina hori ez da asmo nagusia. Helburua gorputza eta bihotza ez estresatzea da, eta ahal den neurrian erlaxatzea desblokeatzeko. Hala ere, alderdi fisikoa lantzen da, gorputza sasoian edukita. Meditazioak ere badu bere lekua *tai-chi*-an.

**Zer da garrantzitsuagoa, mugimendu asko jakitea ala gutxi batzuk ondo ikastea?**  
Oinarritzkoena mugimenduak ondo egitea da. Alferrikakoa da



*"Ez da beharrezkoa mugimendu askorik jakitea, baizik eta gutxi ondo eginez kontzentratzea"*

800 mugimendu jakitea, erlaxatzea lortzen ez bada. Bada forma labur bat zazpi mugimendu dituen, eta hori ondo eginez gero, nahikoa da.  
**Edozeinek egin dezake?**  
Edozein adinetako pertsonak egin dezakete, nola umeek hala

*"Edozeinek egin dezake, ume, gazte zein laurogei urteko pertsonak ere"*

laurogei urtekoek. Ariketa suabeak direnez, gorputza erregulatu egiten dute, eta orekatu. Emakumeentzat bereziki gomendagarria da, mugimendu suabe horietarako berezko trebetasuna eta dohaina daukate-eta. Baina edozein animatuko nuke.

EUSKARA

Luis Mari Arantzeta, Ozkarbiko presidente

I.A.  
Joan zen irailaren 25ean Ozkarbi elkarteak batzar orokorra egin zuen. Bileran, besteak beste, zuzendaritza berriko kideak aukeratu zituzten, eta hemendik aurrera Luis Mari Arantzeta izango da presidentea, orain arte egon den Daniel Gillegiren ordez.

Ozkarbiren urteko batzar orokorrera 40 bazkide inguru azaldu ziren eta hainbat gai izan zituzten berbetarako. Besteak beste, teilatuari eta berogailuari buruz jardun zuten berbetan.

Teilatua konpontzeko asmoen berri eman zieten bazkideei, eta berogailu berria ipintzeko proiektua ere azaldu zuten. Izan ere, bi aukera zeuden: berogailu sistema osoa aldatzea edo lehengo berritzea. Bozketa egin ostean, sistema guztiz berria ipintzeko erabakia hartu zuten. Bestalde, zuzendaritzakoek jakinarazi zuten sukaldean gasa sartu dutela.

**ZUZENDARITZA BERRIA**  
Gai orokorrez gain, bazkideen altak eta bajak eman zituzten aditzera.

Bestalde, bi urteren ostean Daniel Gillegi presidente zuen zuzendaritzako hainbat kidek kargua utzi eta ordezkari berriak aukeratzeko aprobetxatu zuten urteko batzarra.

Orain arte presidenteorde postuan egon den Luis Mari Arantzeta izango da hemendik aurrera Ozkarbiko presidente, eta bere lekua Jabier Arantzetak hartuko du. Zuzendaritzako gainerako kideak honako hauek dira: Leire Barrutia, Nerea Basauri, Eba Belar, Teresa Elortza, Maier Iratzabal, Jone Muxika eta Joseba Muxika.

Zuzendaritza berriko kideek eguenean izan zuten lehenengo bilera, eta bertan egin zuten hemendik aurrerako lan banaketa. Bakoitzak dagokion kargua hartu ondoren, aipatutako elgetarrak datozen bi urteotarako izango dira Ozkarbiko zuzendaritza taldekoak.

LABUR

Umeendako kirol hastapen eta eskola kirol programetako izenemate epea zabalik

Kirol hastapena helburu duen oinarritzko soin hezkuntza zerbitzua eskainiko du Udalak, astean behin, 6 eta 8 urte arteko umeendako. Programaren berri emateko eta monitorea ezagutzeko bilera urriaren 9an izango da, 17:30ean, liburutegian. Bestalde, Benjamin eta alebinendako eskola kirol programa abian da. Astean entrenamendu saio bat eta larunbatetan partiduak izango dituzte. Interesatuak eskolako soinketa irakaslearengana jo dezakete.

Zapatuan emitituko dute Herri Irratian Elgetari buruzko 'Herriz herri' saioa

Datorren urriaren 4an, zapatuan, hasiko du aurtengo ikasturteari dagokion ibilbidea Herri Irratiko *Herriz herri* saioak. Alberto Gorritibereak bisitatuko duen lehenengo herria Elgeta izango da. Goizeko 11:05ean hasi eta 12:35era bitartean, beraz, Elgeta izango da protagonista. Herriari buruzko azalpenak eman ostean, Internet, agintaldi berrirako asmoak, kultura, enpresa, merkataritza, eta abar izango dituzte berbagai. Musikari ere eskainiko diote tartetxo bat, eta herritarrek ere izango dute berba egiteko aukera.

Banatzailleak

Bariku arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora eta Martagatik galdetu

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

## ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Liburuaren  
aurkezpena  
udaletxean

Juan San Martin euskaltzain, euskaltzale eta idazle eibartarrak *Elgeta con Anguiozar y Ubera* liburua 1975eko maiatzean aurkeztu zueneko erretratua da honakoa.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, herriko berri emanez egindako liburuari buruzko azalpenak eman zituzten bertaratutako herritarren eta agintarien aurrean.

Pedro Zelaia abade eibartarrak izenburu bertsuarekin *-Elgeta, Anguiozar y Ubera*, hain zuzen ere beste liburu bat kaleratu zuen garai hartan, eta Zelaia bera ere aurkezpen hartan izan zen.

Herritarrek eta agintariak han zirela esan dugu, eta bestelako babesik ere jaso zuten aurkezpenean; garaiko egoera zela eta, Francisco Franco, argazkitik bazen ere, begira izan zuten denbora guztian, baita amabirjinaren irudia ere. Beraz, babes politiko eta espiritualik ez zen falta izan.

Hona hemen zein diren argazkikoak. Mahaian ezkerretik eskumara:

Jose Antonio Igartua (parrokoa), Juan San Martin (idazlea), Patxi Basauri (alkatea) eta Pedro Zelaia (Eibarko abadea). Mahaian eskuinaldean agertzen dena kanpotarra da, baina ez dakigu nor den.

Argazkia: A. Agirreazaldegi



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILLOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**OILAGORRA**  
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

**Maxim's**

943 76 20 61  
BERGARA

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

**MUJIK** FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



## Etxerako ederrena, Zanguitun

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu!



Koloreak sortzeko makina  
Paretetarako, zorurako, altzariak margotzeko...

**%20ko**  
deskontua  
etxerako  
pinturetan



**ZANGUITU margoak**

Irala z/g. BERGARA.  
Tel.: 943 76 19 54.

**IRU margoak**

Araba etorbidea 3. ARRASATE.  
Tel.: 943 79 11 71.

**deco-tex ZANGUITU alfonbrak**

Herri lagunak 4. BERGARA.  
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea\* Sintasola\* Moksetak\*  
Paper pintatuak

\*Salmenta eta etxean ipintzea.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak  
Edredoak Kortinak Toailak Izarak

# CDTi Meriva berria Diesel Common Rail



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



96% Meriva



Konturatu zara malgua izanda urrunago heltzen zarela? Kilometro gehiagok aukera gehiago eskaintzen dituztelako, orain Opelen monobolumen berriaz goza dezakezu. Opel Meriva Diesel Common Rail teknologiarekin. Kontsumo minimoa eta errendimendu maximoa eskaintzen dizun Meriva, 1.000 aukera baino gehiago zuk heldu nahi duzunera heltzeko. Opel Meriva 1.7 CDTi berria da.

Meriva gama: kontsumo (l/100 Km) mistoa 5,3tik 8,2ra. CO<sub>2</sub> emisioa (g/Km) 159tik 257ra.

## Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)